

# Sarean harrapatuta

Nerea Ibarzabal Salegi

Hitz politak edo muxuak bidaltzeko, modu errazena whatsappa zaigu egun.
Mendekotasuna ere badugu sare sozialekin...
Bertsoei oinak falta zaizkie. Ea puntu bakoitzean oin egokia hautatzen dugun!

***Doinua: Zer da gaur Donostian***
**Hamarreko txikia**

1 Etxe guztietako
kide berri **hori**
laztantzea gustatzen
zaiguna .......................
gozo biltzen duguna
ez dadin .......................
mobilak bateria
beti gori-.......................
beste inor ez dugu
zaintzen horren **ongi.**

gori askori erori

2 Mundu berri bat sortu
dugu behatz **trebez**
sare sozialei esker
gertu daude ..................
Aulesti, Massachusets
eta .......................
baina sare denekin
gertatzen den ................
sartzea erraza da
ateratzea **ez.**

legez Buenos Aires berez

3 Whatsapp-a da batasun
bezain **bakardade**
sentipenak bihurtzen
dituena .......................
Jajajaja, jejeje
pistola, ........................,
gero bi malko eta
zazpi bihotz ..................
aurpegirik aldatu
ere egin **gabe.**

klabe pare zizare

4 Hondartzan eguzkitan
nahiz pastel bat **jaten**
Instagram-en gordeta
mila .......................
momentuak ez digu
nahiko poz ................
izozten ez badugu
*selfie* txukun ...............
denek pozik gaudela
ikusi **dezaten.**

ematen oroitzapen baten

5 Asmatu ditzakegu
izana, **izena**
baina jakinik zein den
jarrera ................
hemen haizeak ez du
eramaten ..............
hobe ez egitea
sarean .................
aurrez aurre egingo
ez **genukeena.**

barrena dena zuzena

6 Amaraun txikienek
daukaten **lanketa**
futboleko ate bat
edo .................
salabardo berde bat
arraintxoz ............
ez dezagun hainbeste
maitatu ................
sarerik sozialenak
kanpoan **daude ta!**

tableta erraketa beteta